

SANANTOLINAK
2025
ABUZTUAREN 29tik IRAILAREN 8ra
[ LEKEITIO ]
LEA-ARTIBAI, MUTRIKU ETA BUSTURIALDEKO
HITZA

# AUTOS BERRITXU

## AUKERAKO KOTXEAK

www.autosberritxu.com

Erribera auzoa, 13 behea
**94-613 99 90 · BERRIATUA**

Ondo pasa san antolinak!



Jaietan ADI!
**Urtero modura, sanantolinen argazki galeria eta bideoak**
egongo dira HITZAren webgunean, JAIAK atalean.

# SANANTOLINAK

ABUZTUAREN 29tik IRAILAREN 8ra

2025

[ LEKEITIO ]


Argitaratzailea:
**Lea-Artibaialdeko Hedabideak E.M.**
Helbidea:
**Markina-Xemein**
Arretxinaga kalea 1
tel.: 94-684 44 36• lh@hitza.eus
**www. busturialdea.hitza.eus**
**www. lea-artibaietamutriku.hitza.eus**

Zerbitzu gida:

**lea-artibaietamutriku.hitza.eus/zerbitzu-gida**

HITZAleamutriku
hitzaleamutriku

**Azaleko argazkia:**
Lekeitioko udala

**Testuak:**
HITZA • Lore Bengoetxea Ibazeta.
HITZA • Ibon Bergara Etxearte.
Lekittoko Mugimendu Feminista.
Lekeitioko Udala.

**Diseinua eta maketazioa:**
11barri.eus • Eli Azpiazu Armaolea.

**Publizitatea:**
HITZA • Maribi Fernandez Zabala.

**Argazkiak:**
Lore Bengoetxea Ibazeta, Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko HITZA, Isuntza (Peter Zendoia), Lekeitio 700, Lekeitioko Udala, Gabo Punzo (Labayru Fundazioa), Parkeko Gunia eta Lekittoko Mugimendu Feminista.

bai euskarari | zerbitzua eta lana euskaraz

2023 KUDEAKETA AURRERATUARI DIPLOMA

Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

Bizkaia foru aldundia

Ondo-ondo pasa Sanantolinak!












Egitaraua →

## abuztuak 29, barikua

**• 17:00.**
SAN ANTOLIN TROFEOA (jubenilak):
17:00 Lekeitio FT - Athletic club /
18:00 Alaves – Eibar /
19:00 Hiru eta laugarren postua /
20:00 Finala.
Kepa Naberan Kaltzakorta futbol zelaian.

## abuztuak 30, zapatua

**• 10:00.**
SAN ANTOLIN TROFEOA (kadeteak):
10:00 Lekeitio FT - Athletic club /
11:00 Reala – Alaves /
12:00 Hiru eta laugarren postua /
13:00 Finala.
Kepa Naberan Kaltzakorta futbol zelaian.

## abuztuak 31, domeka

**• 18:00.** SAN ANTOLIN 29. ALTUERA JAUZIKO TXAPELKETA plazan.
**Tximista taldeak** antolatuta.

**• 21:30.**
Eraso matxisten kontrako MANIFESTAZIOA.
Tortola kaletik hasita.

## irailak 1, astelehena

*San Antolin bezpera*
*Bajada eguna*

**• 12:00.**
BURUHANDIAK ETA ERRALDOIAK kalerik kale, **Itxaropena** txistulari taldearekin.

**• 19:15.**
38. KUADRILEN BAJADA, **Txirrist txarangak** eta **Aittitta Makurra txarangak** animatuta.
Hasiera Sabino Arana 31tik (Telefonikako eraikinaren aurretik). Kuadrilak Txirrist txarangaren atzean kokatu beharko dira. Herriko taldeen musika ondo entzun ahal izateko, bozgorailurik ez eramatea eskatzen da.

**• Bajadaren ostean.**
TXOSNEN IREKIERA.
Ant.: **Txosna batzordea**

**• 20:00.**
ANGELUSA, hasiera emateko San Antolinei; KANPAI JOTEA, TXUPINAZOA eta ANTEROREN BAJADA.
**Oihana Garatea Sustaeta**, Lekeitioko azken sareginak botako du txupinazoa.

**Albina Stardust & Divina Comedia-ren** MUSIKA EMANALDIA plazan. Bajadaren amaiera animatu eta gaua girotzeko.

**• 22:30.**
SUZKO ZEZENA plazan.

**• 23:00-02:00.**
DJ SAIOA eskolapean.
**DJ Txankleta.**

**• 23:30.**
ERROMERIA plazan.
**Akerbeltz.**

**•22:00-06:00. ARRETA FEMINISTARAKO GUNEA.**
ERASO SEXISTEN ARRETA GUNEA Turismo bulegoan.

*Jaietan bakoitzak bere «tangia» erabil dezala!*
Herria txukun mantentzeko ahalegina **denon artean** egin behar dugu.

BOLANDERAK JAURTIKO DIRA.
Ikono hau zaratekin hipersensibilitatea dutenak ere jaietaz gozatzeko gehitu da.

Azoka
Barazki eta Frutak
94-684 00 60
LEKEITIO
Buenaventura Zapirain kalea, 5 behea

albaitariak


608 167713 / 689 230 365 /
Faxa: 94 624 35 05 / behial@euskalnet.net
LEKEITIO

OPARIAK, ESKULANAK
ETA KONTSERBAK
BIRA
LEKEITIO
688 74 92 27 @biralekeitio
Gamarra kalea, 2 - LEKEITIO

DANONTZAT
LEKEITIO
50 urte elkarrekin
1974tik zabalik, mila esker!
Gamarra enparantza, 4
94-684 04 40

DENDARI

NEURRI
bereziak
Abaroa
Etorbidea, Z/G
94 684 09 06
LEKEITIO

EROSKI city
OKAMIKA
Zure eguneroko denda
HARATEGIA / URDAITEGIA
FRUTERIA / IZOZTUAK
JAI ZORIONTSUAK
Santa Katalina 2 _ 94 684 04 94
Mª Diaz de Haro 4 _ 94 624 36 71
LEKEITIO


Ondo-ondo pasa Sanantolinak!

## OIHANA GARATEA SUSTAETA

Txupinera.

# *Saregintzak oraindik badu etorkizuna, baldin eta gazteei bidea egiten badiegu*




Lekeitioko portuan azken saregilea izanik, Oihana Garatea belaunaldi askoren lanbideari eutsi dion emakume ausarta da. Urteak daramatza sareak konpontzen, itsasoaren erritmoari jarraituz, isilik baina tinko. Horregatik aukeratu dute herritarrek txupinera: herriaren bihotzetik txuopina botako duen emakume langilea, umila eta maitatua delako.

**Nola jaso zenuen txupinera izendapena? Espero zenuen?**
Ez nuen inondik inora espero. Zinegotzi batek deitu zidan, eta guztiz sorpresan harrapatu ninduen. Hasieran baiezkoa eman nuen, baina egunak aurrera egin ahala, beldur puntu bat sentitu nuen. Azkenean, herritarrek ni aukeratu izana zirrara handia izan zen. Harro eta eskertuta sentitu naiz.

**Lan gogorra da saregilearena. Zer da ederrena eta gogorrena zuretzat?**
Gogorrena udaberriko lanaldi luzeak dira, sare bustien gainean eta posturaz oker eginda aritu behar izaten baita. Gainera, hotzak ere eragiten du. Alde ederra, berriz, beti ikasten ari zarela da. Ofizio honek aukera ematen dizu etengabe hazteko.

**Ama lagun izan zenuen hastapenetan. Zer oroitzapen duzu harekin lanean?**
Nire ama ez zen saregilea izan, baina ni ikasten ari nintzenean laguntzera etortzen zen. Elkarrekin lan egitea oso berezia zen; berarentzat harrotasun iturri, eta guretzat une politak.



**Pasarte kutxunen bat gogoratzen duzu?**
Maritere lankideak beti esaten zidan: "Sareek egingo dizute hitz". Hasieran ez nuen ulertzen, baina denborarekin bai. Egun batean nik esan nion: "Maritere, azkenean hitz egin dit sareak".

**Zer esango zenieke gazteei saregintzara hurbiltzeko?**
Esatea baino, azken urteotan baldintza duinak lortzeko egin dugun lana azpimarratuko nuke. Egonkortasuna funtsezkoa da gazteentzat. Horrela, saregintzak etorkizuna izango du.

Ondo-ondo pasa Sanantolinak!













Egitaraua →

# irailak 2, martitzena

## San Antolin Eguna
## Alkondara zuri eguna
## Amnistia eguna

**• 09:00.**
AKORDEOI-JOLEEN KALEJIRA.

**• 11:00.**
24. TIRAGOMA TXAPELKETA
Limoneruan.
Parte hartzeko izena ematea: 10:30ean.
**Aittitta Txiki elkartea**ren eskutik.

**• 11:15.**
AGINTARIEN PROZESIOA.
Lekeitioko alkate eta zinegotzi jaun-andreak udaletxetik eleizaraino joango dira, **Itxaropena** txistularien laguntzarekin.



**• 11:30.**
MEZA NAGUSIA.

**• 12:00.**
BIODANTZA. Parkean.
Ant.: **Parkeko Gunia.**



**• 17:30.**
MARRAZKETA TAILERRA.
6-8 urtekoak gurasoak lagunduta.
Izen ematea: 17:00.



ERAIKUNTZA TAILERRA.

**• 20:00.**
PARKEKOEN PREGOIA
Ant.: P.G.





**• 18:00.**
XV. TXAPEL JAURTIKETA
Uribarren kalean.
Parte hartzeko izena ematea: 17:30etatik 18:00etara.
**Aittitta Txiki elkartea**ren eskutik.

**• 19:30.**
OMENALDIA XENKI ETA MURGI GOGOAN.
53. urteurrena.

**• 20:00.**
FAROLAPEKUA, parkean.
**Akustikaia** eta **Occhi di Farfalla** musika taldeak.
Ant.: P.G.



**• 19:30.**
BERTSOLARIAK
Arranegin.
BALKOITIK BALKOIRA:
**Alaia Martin, Sustrai Colina** eta **Aissa Intxausti.**



**• 21:00.**
KONTZERTUA plazan.
**Puro Relajo.**



**• 23:00.**
SU ARTIFIZIALAK
**Valecea** piroteknlaren eskutik.

**• Ondoren.**
SUZKO ZEZENA.

**• 23:45.**
KONTZERTUA eskolapean.
**Errota** taldea.

AZPITARTE autoak

- Zerbitzu azkarra!
- Berrikuspenak
- Matxura elektrikoak eta elektronikoak
- Mekanika

Okamika Industriagunea, II pabilioia 1A4. • GIZABURUAGA
688 62 92 84 / 94 624 38 60 azpitarteautoak@gmail.com

CONFORTAUTO.COM



ESKUONAK
AUTOKONPONKETA

*Liderrak segurtasunean, prestazioetan eta prezioan!*

- Edozein arazo mekanikoen konponketa
- Txapa eta pintura
- Hankook pneumatikoak
- Zure autoa nahi duzun tokian hartu eta utziko dizugu



Gardotza industrialdea, 9 BERRIATUA 94-683 33 59 - 679 63 13 86 eskuonak@gmail.com

TXEBARRIA
lektrizitatea
lectricidad

INSTALAZIOAK OROKORREAN /
MANTENIMENDU LANAK /
ATEZAIN AUTOMATIKOAK /

699 852 246
ula.etxebe@gmail.com

48289 Lekeitio - BIZKAIA

GUZURMENDI
taberna

Arranegi Kalea, 2
Lekeitio 94 624 37 25

Ondo pasa jaietan!

# DENOK GARA DESBERDINAK!

Jaietan inklusibitateari begira hartutako neurriak gutxiegi dira dibertsitate funtzionala daukatenek eta haien senideek diotenez. Ikusgarritasuna, enpatia eta errespetua aldarrikatzen dituzte.

Gaur egun, neurri batzuk hartzen dira jaietan inklusibitateari begira: barraketan ordu tarte batean musikarik ez da egoten hipersentsibilitatea daukaten umeekin pentsatuta, bajada egunean udaletxean lekua gordeta daukate dibertsitate funtzionala daukatenek eta lehentasuna daukate zenbait ekitaldirako errenkadak saihesteko. Halarik ere, neurriok berandu heldu dira hainbatentzat, eta ez dira aski.

Gorosti Txopitea Basterretxea, Eider Aboitiz Legarra eta Jone Miren Antxustegi Plazak errealitate desberdinak bizi dituzte, baina premiek elkartzen dituzte, eta horietaz badakite zer edo zer. Jaietan ez dira desagertzen. Aldiz, hazi egiten dira. Petardoek, adibidez, nahasmendua eragiten diote kolektibo bati, Aboitizek dioenez dibertsitate funtzionalik gabeko hainbati ere bai, eta horren aurrean irtenbideak eskatu dituzte: petardo kopurua gutxitzea edo mugatzea eta programan ze ekitalditan eta ze ordutan botako diren adieraztea.

**Enpatia**

Ikusgarri egin nahi dira; ezagutzera eman. Jaietan lekurik egin ez zaien kolektibo batzuen ekitaldiak programatuta, kasu. “Ezagutzen duzuna errespetatzea errazagoa da ezagutzen ez duzuna baino. Orokorrean errespetu edo enpatia falta dago. Eta jendeak ulertu behar du zu salto-saltoka zabiltzan bitartean alboan daukazula beste bat nahikoa daukana bertan egote hutsagaz, edo beste bat aulkiagaz ezin dena mugitu ere egin ez daukalako pasatzerik, eta denok ezin dugula berdin gozatu”, dio Antxustegik.

Dibertsitate funtzionala daukatenen jarrera, ordea, eredugarria ei da. “Eurak gu baino toleranteago dira. Talde baten sentitu nahi dute, ze gizarte honetan ez dira parte sentitzen”.



Jone Miren Antxustegi Plaza, Gorosti Txopitea Basterretxea eta Eider Aboitiz Legarra, hurrenez hurren.

Ondo-ondo pasa Sanantolinak!












Egitaraua →

# irailak 3, eguaztena

## *Kamiseta eguna (kuadrilakoa, erreibindikatiboa...)*

**• 10:00etatik aurrera.**
29. PAELLA TXAPELKETA plazan.
Ant.: **Jai batzordea.**

**• 11:30.**
KUADRILEN ARTEKO PROBAK
Abadeen moilan.
Ant.: **Garraitz K.T .**



**•12:00.**
TIRAGOMAK EGIN ETA ERABILI.
Ant.:
**Parkeko Gunia.**



**• 12:30.**
TXISTULARIEN KALEJIRA ETA KONTZERTUA.
Udaletxetik hasita kalejira eta kontzertua plazan.
**Itxaropena** txistulari taldea.

**• 13:30.**
PAELLEN AURKEZPENA eta SARI BANAKETA plazan.

**• 15:00.**
HERRI BAZKARIA.
Paella eguna.
Eguraldi onarekin arbolapean.



**• 17:30.**
HAREZKO GAZTELU TXAPELKETA.
Izen ematea: 17:00etan parkean.
Taldeak gehienez 6 pertsonakoak izango dira - euretatik bi nagusiak - eta bakoitzak bere tresneria ekarri beharko du: pala, eskuarea, kuboa, dekoratzeko gauzak...



**• 19:30.**
ATUN ERREA.
Ant.: **P.G.**

**• 20:00.**
FAROLAPEKUA, parkean.
**Gu ta gitarrak** musika taldea.
Ant.: **P.G.**

**• 19:30.**
ELEKTROTXARANGA
**Zutik** taldea kalerik kale, udaletxe aurretik hasita.

**• 22:00.**
KONTZERTUA plazan.
**48280 taldea.**




**• 23:30.**
KONTZERTUA plazan.
**Delirium Tremens.**







**•22:00-06:00.**
**ARRETA FEMINISTARAKO GUNEA.**
ERASO SEXISTEN ARRETA GUNEA
Turismo bulegoan.

Ondo-ondo pasa Sanantolinak!


GOL SAOIRSE tavern






94 684 06 11
Otxoa Urkiza z/b
LEKEITIO

Ikusi
Eraikuntza materialak





ERAKUSKETA • Abaroa etorbidea, 19
94 684 14 99 • LEKEITIO
BILTEGIA • Abaroa etorbidea, 34
94 624 38 71 • LEKEITIO
BILTEGIA • Okamika 1. pab • GIZABURUAGA

I. Aretxaga
Finka administratzailea
Higiezin zerbitzuak
Alokairuak eta salerosketak
Iñigo Aretxaga
Bizkaiko finka
administratzailea, zk.: 808
Arranegi 11-Lekeitio
Tel./Faxa: 94-465 35 75
Sakelakoa: 656 58 03 14
iaretxaga@yahoo.es






IRRINTZI
taberna
BOKATAK
RAZIOAK
RABAK
Gamarra 6 LEKEITIO


Aurkezpen ekitaldia. LEKEITIO 700

# LEKEITIO 700

Azaroaren 3an, Lekeitioko hiribilduak 700 urte beteko ditu. Herriko ondare aberatsa ezagutzeko aukera ezin hobea dela ulerturik, ondare taldeak eta herriko eragileek jarduera programa zabala garatu dute azken hamabi hilabeteetan.

Landu beharreko gaiak hainbat alorretan banatu dituzte: historia eta artea, literatura eta letrak, euskara eta soziologia. Horietan buru-belarri beharrean egon dira Lekeitioko zenbait eragile, hots, Maite Garamendi Rey artxiboko teknikaria, Aitor Iturbe Gabikagogeaskoa eta Iñaki Goiogana historialariak, Jose de la Torre Purru Azkue ikastolako zuzendari ohia, Miren Agur Meabe idazlea, Ibon Noya kultur teknikaria, Koldo Carranza Díez liburuzaina, kultur zinegotziak eta alkatea, bai eta bidean batu zaizkien taldeak ere, egitasmoaren parte sentitu eta hango eta besteko ekitaldien bitartez haren bozgorailu bihurtu direnak, guztiek ere osagai hauek ardatz hartuta: garapenerako borondatea, sormena eta zabalkuntza, inguruaren zaintza, berdintasunaren aldeko borroka eta bizikidetzaren aldeko apustua.

**Webgunea**

Besteak beste erakusketa, bisita gidatu eta hitzaldien bidez, herriari buruzko hainbat jakingarri lekeitiarrekin partekatu dituzte. Horren lekukotasuna jasota geratuko da propio sortutako web orrian, kontsultagai.

Jaietan geldialdi bat egin ostean —sanantolinetan urteurrenari keinuren bat edo beste egingo zaion arren—, Izan Lekeitio 700 azken sprintean sartuko da, azaroaren 3a jomuga hartuta. Urteurren egunean bakarrik ez, asteburu osoan izango dira ospakizunak, besteak beste, Erdi Aroko azoka eta "ezusteko ekitaldi bat". Egun horietara begira, antolatzaileek jendeari parte hartzeko deia egin diote.

Uhara uztea da taldekoen azken helburua. Hain zuzen ere, bulkada horregaz ari dira lanean. "Herritarrak hausnartzera gonbidatu nahi ditugu: nondik gatozen, non gauden, eta batez ere, nora joan nahiko genukeen pentsatzera". Gero 701 etorriko delako. Eta 702....
















Ondo-ondo pasa Sanantolinak!

Egitaraua

# irailak 4, eguena
## Antzar bezpera

**• 10:00-13:00.**
ANTZAR EGUNEKO JAIAN PARTE HARTZEKO **IZENA EMATEA**
Kultur Etxeko Azkue Aretoan.

**• 12:00.**
XAKE PARTIDA ETA JOLASAK.
Ant.: **Parkeko Gunia**

**• 17:00.**
ESKU PELOTA:
*34. Zapaterito pelota txapelketaren finalak.*
Zapaterito frontoian. Euria egingo balu, Santi Brouard pilotalekuan.
Ant.: **Akarregi esku pelota taldea.**

**• Ostean.**
ESKU PELOTA:
*Emakumezko arteko plaza libreko erakustaldiko partidua.*
Zapaterito frontoian. Euria egingo balu, Santi Brouard pilotalekuan.
Ant.: **Akarregi esku pelota taldea.**

**• 17:00.**
PIRAGUA IRTEERA.
11 urtetik beherakoak nagusi batek lagunduta.
Izen ematea; irailak 2, 3 eta 4 goizean, parkeko txosnan. Ant.: P.G.

**• 17:30.**
UMEENTZAKO JOLASAK.
Ant.: P.G.

**• 19:00.**
FUTBOLA: *Nagusien San Antolin futbol txapelketa.*
Kepa Naberan Kaltzakorta futbol zelaian:
Lekeitio F.T. «A»- Artibai.



**• 19:00.**
TXOKOLATADA.
Ant.: P.G.

**• 20:00.**
FAROLAPEKUA parkean.
KONTZERTUA.
**Dei** musika taldea.
Ant.: P.G.




**• 21:00.**
III. SAN ANTOLINEKO CORREFOC FESTA
San Pedro kofradiatik plazara.
**Lekittoko Deabruak** (Lekeitio), **Dimonis Factoria de So** (Mallorka), **Myofragus Dimonis de Ferreries** (Menorka) eta **Diablesses de la Geltrú** (Vilanova i La Geltrú) taldeen eskutik.
Ant.: **Lekittoko Deabruak.**



**• 22:00.**
33. PLAY BACKA
plazan.
Ant.: **Markesen alabak.**

• ERA GUZTIETAKO ERREFORMAK • TEILATUAK • FATXADAK

ERAIKUNTZAK ETA HARRILANAK S.L.

iBTARRI



687 795 736 • ibetarri@ibetarri.eus
• Eleizkale 5, 48380 AULESTI (Bizkaia)

• BASERRIEN "BARRIZTEA" • ERAIKUNTZA BERRIA • PROIEKTUAK

Igeltsu eta sabaien apainketa · Pladurrezko tabikeak

Lucas

Paskual Abaroa etorbidea, 40 behea | 94-465 00 58 | 685 79 36 96 | LEKEITIO

JAN DA LO

OILASKO ERREAK
AURREZ PRESTATUTAKO JANARIA
ARDOAK ETA TXAKOLINA
HESTEBETEAK
KROKETAK
PATATA-TORTILLA
HARAGIA TENPERATURA BAXUAN
GOZOGINTZA

ORDUTEGIA
astelehenetik domekara 10:00 – 15:00.
ETXERA BANAKETA.
(Udan hondartzara banaketa: 12:30-14:30).
Atea, 6 behea. LEKEITIO

649 56 05 51

Janire Zubizarreta Garcia




ARKITETURA ESTUDIOA
Atea 30, behea 2, Lekeitio

Proiektuak
Erreformak
Jarduera lizentziak
Irisgarritasun azterketak
E.I.T. txostenak
Ziurtagiri Energetikoak
Gremioen kooordinazioa



616 143 092 jzg.arkitektura@gmail.com

Ondo-ondo pasa Sanantolinak!

LEKITXOKO
MUGIMENTU FEMINISTA

# URRATS BERRI BAT AUTODEFENTSA FEMINISTAN

Badatoz San Antolink eta jaiekin batera badator ere feministok antolatzeko beharra. Ez gaitzaten engainatu gu ez gara beldurragaitik antolatzen ari, hare gutxiago ez gara bildurra zabaltzen ari. Gu sistema honek sustatzen dituen jaiak eraldatzeko antolatzen ari gara..

Zoritxarrez errespetuan oinarriztzen ez diren jarrera asko ikusten dira jaietan: begiradak, irainak, ukituak, gutxiespenak, bortxaketak, erailketak... Jaiek sortzen duten euforia eta jaietan "dena da libre" premisa batuta gertatzen dira, gizartearen errealitatearen ispilu. Patriarkatuaren erakusle.

Guztion ardura da salatzea eta eraso baten konplizea ez izatea, horretarako badugu tresna bat, protokoloa.Orain arte txosna gunea izan da eraso hauek artatzeko erreferentziazko gunea, protokolo egokitu batekin herrian ematen izan diren erasoak artatu eta erantzuteko konpromezua bere egin eta irmoki bete duena. Baina aurten urrats berri bat eman nahi izan dugu eta Lekeitioko mugimendu feministak erasoei aurre egiteko protokoloa herrira zabaltzeko udaleko berdintasuneko arduradunekin elkarlana burutu du. Elkarlan horren emaitza Emagin elkartekoekin herrian Arreta feministarako gune bat zabaltzea izango da. Erasoen aurkako sentsibilizazio kanpainaz haratzago, erasoak artatu eta salatzeko erreferentzizko gune bat zabalduko da irailaren 1,3,5 eta 6an kontziopean, hau da, udaletxe azpiko arkupeetan independentzia plazan. Egun hauetan 22:00etatik goizeko 06:00ak arte egongo da zabalik eta Antzar egunean ordutegi zbalagoa eskainiko du goizeko 12:00etatik hurrengo goizeko 06:00etara.

Autodefentsa feminitan urrats berri bat emango dugu. Egin ditzagun denon artean denok gozatu ahal izateko jaiak! Gure gorputzak, autoestima eta bizitzak dira jokoan daudenak, beraz jaietan ere, autodefentsa feminista! Gora San Antolinak!.



2024ko abuztuaren 31n, jaien bezperan egindako manifestaldia eraso sexisten aurka. Tortola kaletik hasita. LEKITXOKO MUGIMENDU FEMINISTA








**684 80 20 53**

**8 JAI EGUNETAN**
**24 ORDUZ**

Ondo-ondo pasa Sanantolinak!















Egitaraua →



# irailak 5, barikua
## *Antzar eguna*

**• 10:00.**
**Txirrist txarangaren** KALEJIRA.

**• 11:00.**
BURUHANDIAK eta ERRALDOIAK KALERIK KALE
**Itxaropena** txistulari taldearekin.

**• 11:45.**
**Itxaropena** TXISTULARIEN eta ANTZAR BATZORDEAREN KALEJIRA Kioskoraino.

**• 12:00-15:00.**
UMEEN PARKEA Juan Bautista Eguzkitza enparantzan eta plaza gorrian.

**• 12:00.**
ZOZKETA PLAZAN, antzarren jaian parte hartuko duten txalupei zenbakia emateko.

**• 13:00.**
TXISTULARIEN BATZEA Eskolapean, **Itxaropena txistularien** gidaritzapean.
Txistua jo nahi daben guztia etortzera gonbidatzen da.

**• 16:00-20:00.**
UMEEN PARKEA Juan Bautista Eguzkitza enparantzan eta plaza gorrian.



**• 16:00.**
ANTZARREN JAIA portuan.

**• Gero.**
MASTA-PUNTAKOA.

**• 19:00.**
DJ SAIOA plazan.
**DJ Jotatxo.**



**• 21:00.**
*VII. CaixaBank Esku Pilota Mastersa*
ESKU PELOTA TORNEOA Santi Brouard frontoian.

**• 22:00.**
ERROMERIA plazan.
**Lehian.**

**• 01:00.**
DJ SAIOA plazan.
**DJ Garai.**

**• 12:00-06:00.**
**ARRETA FEMINISTARAKO GUNEA.**
ERASO SEXISTEN ARRETA GUNEA
Turismo bulegoan.

Ondo-ondo pasa Sanantolinak!













## Inkesta

## ZER PAPER DAUKATE TXOSNEK ETA ZE IRUDITZEN ZAIZU TICKETBAI ERABILTZERA DERRIGORTZEA?



**Fernando San Miguel Salazar**

«Nik dakidan gauza bakarra da zarata handia ateratzen dutela. Horrez gain, uste dut denok betebehar bera eduki beharko genukeela. Tabernariek ere ordaindu behar badute, haiek ere dagokien zerga ordain dezatela. Salbuespenak egon daitezke, ongintzarako jartzen diren txosnen kasuan, adibidez. Baina arau orokor modura, ez nago txosnak salbuestearen alde».



**Lorea Zarragoikoetxea Aranzeta**

«Neu ez naiz txosnetan asko ibiltzen, baina badakit leku garrantzitsua betetzen dutela, jaia leku gehiagotara zabaltzen dute eta. TicketBai sistemari dagokionez, auzoetan ikusten dugu zelako nahastea eragiten duen. Pentsatzen dute txosnen atzean negozio bat dagoela, eta nik neuk hortik aberastu den inor ez dut ezagutzen».



**Iñaki Brouard Urkiaga**

«Beti izan naiz txosnen aldekoa. Txosnak ez dira negozio bat. Beraz, ez lirateke hala hartu beharko. Bere lana ondo betetzen dute, eta ez dago zertan horrelakorik exijitu. Jaiak indartzeko dira, eta hortik lortzen den dirua gauzak antolatzen jarraitu ahal izateko da. Euskal Herriko txosnen lana aldarrikatzen dut gizarteari egiten dioten ekarpenarengatik».



**Maribel Oleaga Urrutikoetxea**

«Gu txosnen alde gaude, eta ez litzaieke zergarik kobratu beharko. Argi daukat. Gizarte ekimen bat da, eta egun batzuetan baino ez daude. Ez dira negozio bat. Ez da bidezkoa beste edozein jarduera ekonomikogaz parekatzea. Urte guztiko dinamikak aurrera eramateko ipintzen dira. Irabazi asmorik gabekoak dira, eta gizarte ekarpena egiten dute urte guztian».



**Nahia Rodriguez Arrinda**

«Niretzat txosnak ez lituzkete TicketBai erabiltzera derrigortu behar. Salbuetsi egin beharko lirateke. Zergak kobratuko balitzaizkie, ez litzaieke geratuko ezer. Ez litzaieke mereziko txosnarik jartzea. Eta geuri, herritarroi, mesedea egiten ari dira, bai tabernen aurrean alternatiba bat sortuta, bai dinamikak aurrera aterata. Jaietan txosnak egotea beharrezkoa da».



**Josu Mendiola Olazar**

«Txosnak kultur eragile pilo baten urteko ekimenak finantzatzeko jartzen dira. Fiskalizazioak, luzera begira, kultur galera eragingo luke. Bide batez esan tabernarientzat ere ez dagoela erraz TicketBai erabiltzea, ze sarri negozio familiarrak dira, fakturazio oso baxukoak eta jende nagusiaren ardurapekoak. Ez dago ondo horiei horrelako teknologia bat inposatzea».

EGIGUREN ERAIKUNTZAK, S.L.
INDUSKETAK
ETXEGINTZA
BERRIKUNTZAK
EGIGUREN
ERAIKUNTZAK S.L.
Loiolako Iñaki deuna kalea, 6-behea
LEKEITIO • tel./faxa: 94 684 00 10




lekeitiarra
funeraria • beilatokia




94 684 1628
Sabino Arana 10 behea • 48280 LEKEITIO

www.inmobiliarialopez.net
INMOBILIARIA
LOPEZ
Pili López Arritola
Apalloa kalea, 22
94 624 37 77
689 582 582
pili@inmobiliarialopez.net
48280 LEKEITIO

Lekeitioko
Herri Eskolak
Haurreskola / Eskola / Institutua



LUMENTZA
GASTRO BAR
94-684 15 01
www.lumentza.site
B. Zapirain, 3 LEKEITIO

Egitaraua

# irailak 6, zapatua



**•16:30.**
UMEENTZAKO
MASTA-PUNTAKOA
Abedeen moilan.
Izen ematea 16:00etan.



**•17:30.**
*VII. CaixaBank*
*Esku Pilota Mastersa*
ESKU PELOTA
TORNEOA
Santi Brouard
frontoian.





**•19:00.**
IPUIN KONTAKIZUNA.
Ant.: **Parkeko Gunia.**



**•20:00.**
ANTZERKIA
*Dada Ü Lala*
Ant.: P.G.

**•20:00.**
ANTZAR JAIKO ETA
NAGUSIEN
MASTA-PUNTAKOAREN
SARI BANAKETA
limoneroan.

**•21:30.**
KONTZERTUA plazan.
**Janus Lester** taldea.



**•23:30.**
KONTZERTUA plazan.
**Süne** taldea.



**•01:00.**
DJ SAIOA plazan.
**DJ Opilak.**

**•22:00-06:00.**
**ARRETA**
**FEMINISTARAKO**
**GUNEA.**
ERASO SEXISTEN
ARRETA GUNEA
Turismo bulegoan.

ITURGINTZA | GALDARAK | GASA | ENERGIA BERRIZTAGARRIAK




Maguregi
iturgintza

DENDA BERRIA: Buenabentura Zapirain, 3 behea
TAILERRA: Aldamiz Etxebarria, 1 behea • LEKEITIO
656 70 83 92 • 94-684 00 22 • maguregi_iturgintza@yahoo.es

OREKANBAT
kirol klinika

Aldamiz Etxebarria, 16 LEKEITIO • 664 07 22 54
orekanbat@gmail.com
@orekanbat

LEIHOPE
taberna



661 89 50 90
Abaroa Etorb., 24 - LEKEITIO

mantxua
taberna jatetxea • bar restaurante
L E K E I T I O

Beheko kalea, 24 • 94-465 33 49

# MIKEL ARRASATE LARREA

Triatleta

# Egun handiak baino gustukoagoak ditut tartekoak




Irailaren 6an triatloi egutegiari berrekingo zaiola eta, aurtengo sanantolinletan "lasai" ibiliko da.

**Triatloiaren barruan, txirrindularitza frogetan aldea erakutsi itzan duzu.**
Txirrindularitzan oso gustura ibili naiz, eta nire indargunea horixe den arren, hasita nago beste diziplinetan gehiago entrenatzen.

**Bizikleta aipatuta, aisialdirako ere erabiltzen duzu?**
Bai, jakina. Herrian, normalean, hondartzarako; eta Donostian, klasera joateko.

**Irailean, berriro probak hasiko zaizkizu.**
Udako etenaldiaren ostean, irailaren 6an lehenengo proba jokatuko dut, eta horren atzetik Espainiako txapelketa eta beste txapelketaren bat edo beste ere badaukat.

**Ze asmo daukazu sanantolinetarako?**
Irailaren 6ko proba hor egonda, aurten Antzar Egunean lasai ibiliko naiz, derrigor, eta orokorrean ere bai, baina edukiko dut aukera jaietan bueltatxoren bat emateko, kontzertuak ikusi eta lagunekin egon, hori ere egin behar da eta.

**Sanantolintean zer duzu gustukoen?**
Ez naiz izan egun handietakoa. Sarri irailaren 1ean kanpora joan izan naiz. Eta Antzar Eguna ere ez zait horrenbeste gustatzen. Egun handiak baino gustukoagoak ditut tartekoak. Gehiago gozatzen dut. Uste dut orokorrean bertokook nahiago ditugula tarteko egun horiek.

**Parte hartu duzun ekitaldi bat?**
Akuatloia, aspaldi.

**Eta ikusle modura galdu ezin duzuna?**
Tiragoma txapelketa. Beti ikusten dut, hutsik egin barik.

Ondo-ondo pasa Sanantolinak!




Ondo pasa jaiak!

LEKEITIO
geure
nortasunetik

Kartelaren egilea: **JAVIER RADA AOS-en “Txalupak”**

Egitaraua

# irailak 7, domeka
## Umeen eta kuadrilen eguna

• **11:00.**
BURUHANDIAK eta ERRALDOIAK kalerik kale.
**Itxaropena** txistulari taldearekin.

• **12:00-15:00.**
TIROLINA, ROKODROMOA eta KART-ak plazan.





• **12:00.**
HAURRAK SUKALDARI TAILERRA.
Izen-ematea: abuztuak 20 eta 27an, udaletxe aurrean (19:00-20:30), abuztuaren 30-31 parkean edota irailak 2 eta 3an parkeko txosnan.
**Haurren tailerra eta bazkaria: 5 euro.**
Errezeta: Fideuá balentziarra.
**14:00.** HAURREN BAZKARIA.
Ant.: **Parkeko Gunia.**

• **15:00.**
NAGUSIEN HERRI BAZKARIA.
**Bazkarietako txartelak salgai:** abuztuak 20 eta 27an, udaletxe aurrean (19:00-20:30) eta irailak 2 eta 3an parkeko txosnan.
**Txartela: 15 euro.**
Ant.: **P.G.**

• **16:00.**
MUSIKA EMANALDIA.
**Ganita Kamutsen** eskutik.
Parkeko gunean. Ant.: **P.G.**

• **20:00.**
**Kantuzaleak**
*Gora ezkonberriak!* jantzita Konpainiako eliza aurrean.
Ant.: **Zaletxuak Elkartea.**

• **21:00.**
KONTZERTUA plazan.
**Andoni Ollokiegi.**







* Jai batzordea:
**Jantzi «*Gora ezkonberriak*» mozorroarekin.**
2025eko bajada egunean irabazle suertatzen den mozorroa, 2026an kuadrila eguneko gai aukeratua izango da.

Ondo-ondo pasa Sanantolinak!












TXIRRIST TXARANGA



Gaizka Bereziartua Gabiola eta Luken Aboitiz Zabaleaskoa. LORE BENGOETXEA

# ONDO JOTZEN DET, BAITA NIK ERE

Elikoia, bonbardinoa, tronpetak, tronboiak, saxofoiak, perkusioa; inoiz klarineteren bat; eta horiei distira ateratzen, hamabost musikari gazte. Lekeitioko Txirrist txaranga da.

Orain hiru urte bandaren baitan sortutako proiektua da, gazte txarangazaleak batzen dituena. Nautika eskola dute entsegu leku, Aitxitxa Makurra txarangagaz partekatuta. Hain zuzen, aipagarri da Txirristentzat herrian musikak daukan lekua, aipatutakoez gain hor daudelako, esate baterako, txistulariak, Estudiantina eta, oraintsu arte, herriko banda.

**Ezusteko emanaldiak**

Momentuz Lea-Artibai mailan mugitu izan dira, nahiz eta batez ere Lekeitioko kaleak izan dituzten agertoki. "Normalean, programatuta egoten gara, baina inoiz irten izan dugu inork jakin barik; musikariok batu eta momentuan bertan pentsatuta. Ordu txikietan ere bai. Orain hori gehiago zaintzen dugu, eta jendearen atsedena errespetatzen dugu", adierazi dute Gaizka Bereziartua Gabiola eta Luken Aboitiz Zabaleaskoak.

Txirrist orain hiru urte sortu zuten bandako gazte txarangazaleek

Harrera ona eduki du gazte txarangak. "Gazteok garenez eta hainbat koadrilatakoak, beti etortzen dira gu entzuten", esan du Aboitizek. Izan ere, gero eta ezagunagoak bihurtu dira. "Saioa daukagunean, kalean gure sasoikoen artean entzuten da bolo-bolo Txirristek irtengo duela", dio Bereziartuak.

**Musika ohiturari eusteko**

Txaranga jaiagaz lotu ohi da. Pozagaz. Festa giroagaz. Dena dela, irudi hori ez da hain orokortua. "Beste herri batzuetara joan izan garenean ikusi dugu ez dagoela musikagaz lotutako ekintzak egiteko hain joera handirik. Hori ezagutzera ematea bada gure helburu bat. Eta Lekeition ez galtzea musikarako ohitura". Aboitizen berbak eta asmoak dira. Beste bat gehitu dio zerrendari Bereziartuak: "Ahal denik eta jende gehien etortzea gugana. Ikusleak, zein musikariak: ikusle asko egonda, geu ere animatuago egoten garelako, eta zenbat eta musikari gehiago etorri, orduan eta erraztasun handiagoak edukiko ditugulako emanakizunak lortu eta jotzeko".

Ondo-ondo pasa Sanantolinak!















Egitaraua

# irailak 8, astelehena

## Antiguako Amaren Eguna
## Koittadu Eguna

**• 09:00.**
**Itxaropena** TXISTULARIEN KALEJIRA.

**• 11:30.**
MEZA,
umeen eta aittitta-amumen omenez.

**• 12:00.**
JOLAS LIBREA.
Ant.: **Parkeko Gunia.**

**• 14:30.**
LEKEITIOKO NAGUSIEN BAZKARIA. Jubilatuen Etxean.

**• 17:30.**
MARMO TAILERRA
Marmo erropak egin eta mozorrotzea.
Ant.: P.G.

**• 19:00.**
AFARI-MERIENDA.

**• 19:00.**
DANTZA IKUSKIZUNA plazan.
*Aiurri.*
**Aukeran Dantza Konpainiaren** eskutik.

**• 20:00.**
KALEJIRA PLAZARA.
Ant.: P.G.

**• 21:30.**
SUZKO ZEZENA.

**• Ondoren.**
ANTEROREN EZKUTATZEA,
2025eko jaiei agurra emateko.

KOITTADUA,
**Aittitta Makurra txarangak** animatuta.

KALEJIRA,
**Aittitta Makurra txarangak** animatuta.





Ondo-ondo pasa Sanantolinak!












# NESKEN TRAINERUA, ILUSIOAREN OLATUAN




Berriro uretan dira Isuntzako neskak, estropadaz estropada ikasten eta esperientziaz janzten.

Traineru bete jende bilduta, aurtengo denboraldian bueltan dira Isuntzako neskak, ETE ligan. Irune Cortes Eizagirre eta Ane Landa Benedicto dira euretako bi. Arraunlariok eta Peter Zendoia entrenatzaileak momentuaz hausnartu dute.

**Azpiegitura, prest**

2021etik nesken traineruaren faltan egon da Isuntza, ahalegindu, urtero ahalegindu den arren. Ez dira hutsetik hasi, ordea. "Nahiz eta trainerua ateratzea azken momentuan erabaki, beste guztia prest geneukan, hau da, azpiegitura eta atze guztia, talde teknikoa eta gainerakoak. Hortaz, ez gara ezer bilatzen hasi behar izan, eta horrek asko errazten ditu gauzak", dio Landak.

**Mantendu eta taldea egin**

Denen arteko bultzadari esker dago ostera ere martxan nesken ontzia, eta ez da gutxi. "Kostatu da uretara bueltatzea, eta gure lehenengo helburua mantentzea da", esan du Cortesek. Horregaz bat dator Zendoia, eta klubaren helburua hurrengo urteetan mantentzea izango dela berretsi.

Egon badago harrobia. Datuak dira horren erakusle: aurten neska gehiago dago mutilak baino. Eta gazteagoek badaukate orain non begiratu, erreferente bat.

Astean behin Bilbora joaten dira, errekako prestaketetan sentsazio onak jaso eta taldea egitera. Palada bakoitzak balioko die ikasteko. "Emaitzak laguntzen badute, normala den modura, hobeto; horretxetarako entrenatzen dugu. Baina gozatzea eta ilusioz amaitzea da asmo nagusia, eta datorren denboraldian, negutik hasiko gara traineruari hastiagaz eta perspektibaz begiratzen", adierazi du Zendoiak.

Herrian jendeak urtero galdetzen omen du: "aurten trainerurik?" Bada, aurten atera da. "Jende horri esan nahi diogu hurrengo urtean berdin segitzeko asmoa daukagula. Urtetik urtera jarraitu eta pixka bat gorantz egin nahi dugula, eta behetik datorren jendeari aukera eman".

Ondo-ondo pasa Sanantolinak!












# 2024KO ARGAZKIAK















ZUMARAN
arrain eta
itsaski freskuak
ONDO
PASA
JAIAK
Abaroa, 9 behea | Antiaguako ama, 1
94 684 04 29 | 94 684 27 68
L E K E I T I O

1958tik
ZARAUTZ
ALTZARIAK



• Era guztietako altzariak
• Sofak eta osagarriak, tradizionalak zein azken tendentzietakoak
• Diseinu eta aurrekontuak konpromisorik gabe
94 684 06 53
94 625 85 78
LEKEITIO • GERNIKA

Zakari
Igeltsaritza
Eraikuntza lanak • Gremio koordinaketa
Pietate kalea, 30 LEKEITIO
670 632 680

IDEIAK
SORMENEZ
ONTZEN
DITUGU
11barri
DISEINUA
KOMUNIKAZIOA
EUSKARAZ
11BARRI.EUS
DISEINU GRAFIKOA | KOMUNIKAZIOA | TESTUGINTZA | 607 49 01 66 | 607 49 01 62 | info@11barri.eus

Ondo-ondo pasa Sanantolinak!

Liburuxka honetan ikus ditzakezun akatsak edo iradokizunak jakinarazi **HITZA**-ri mesedez.

# Denon ardura da

LEKEITIOKO UDALA

**Indarkeria matxistari aurre egitea denon ardura da, beraz edozein erasoren aurrean gure jarrera aktiboa izan behar da.**

HARREMANTZERAKOAN ARGI IZAN:

• Inorekin ligatzen saiatu aurretik, behatu hurbiltzeko egin duzun saiakera gustatzen zaion eta jokaera harkorra den.
• Edozein unetan EZETZ esan daiteke
• Ez zaitez astuna izan!
• Ez pentsa lagunen arteko adierazpen afektibo batek zurekin 'rolloren' bat esan nahi duenik.
• Norbait gu edo besteren bat molestatzen dagoela ikusten badugu, elkar gaitezen lagunekin eta esku hartu horrelakorik ez gertatzeko.

ERASO BATEN AURREAN:

• Erasotua sentitzen bazara, erasoa da.
• Erantzuteko modu desberdinak daude; ZEUK erabaki.
• Arreta feministarako gunera hurbildu edo erabilgarri egongo den telefono zenbakira deitu ahal duzu: 684 80 20 53.
• Ez zaitez lotsatu, erasotzailea da lotsatu behar dena!
• Jende gehiago egotekotan, laguntza bilatu. Kontaiezu zer gertatzen ari zaizun eta
zer egin nahi duzun.
• Mutilak! Ez zaitezte aldamenean geratu, erasoen konplize izateari utzi egin behar zaio.
• Erasoren bat ikusiz gero jasan duenarengana jo, galdetu zer behar duen eta haren beharrizanetara moldatu. Beti berak nahi duena errespetatu behar da.
• Ez ezazue erasorik justifikatu, ezta alkoholaren edo drogen aitzakia erabiltzen bada ere.

ARRETA FEMINISTARAKO GUNEA:

- Aurten arreta feministarako gune bat egongo da
- Edozein eraso jasanez gero beratara hurbildu
- Bi pertsona egongo dira artatzeko eta laguntzeko prest
- Nahi izanez gero telefono zenbaki bat ere erabilgarri egongo da 684 80 20 53

TELEFONO BALIAGARRIAK:

• Larrialdiak (24 ordu): 112
• Telefono bidezko laguntza edozein ordutan: 900 840 111
• Lekeitioko anbulategia: 94 603 58 60
• Udaltzaingoa: 94 684 20 00

**ARRETA FEMINISTARAKO GUNEA**
**Irailaren 1, 3 eta 6an** 22:00etatik 06:00etara
**eta irailaren 5ean** 12:00etatik 06:00etara.
**Turismo bulegoan.** Santa Elena Etorbidea, 2.
**684 80 20 53**

## ERASO MATXISTEI ERANTZUN!

**Eraso matxisten aurrean egin beharrekoa:**

• Pertsona bat erasotua izaten ari dela iruditzen bazaizu, harengana joan eta laguntzarik behar duen galdetu iezaiozu, zeure kabuz erabakiak hartu aurretik.

• Baietz badio edo norbait barrara badator erasoa salatzera:

1. Lehentasunezko kontua da, beraz, egiten ari zarena utzi eta pertsona horri babes guztia eman eta kasu egin.

2. Beharrezkoa bada, espazio seguru eta lasaia bilatu.

3. Arreta handiz entzun erasoa jasan duenak esateko duena (azalpena, beharrak...)

4. Erasoa jasan duen pertsonari laguntzea lehentasuna da, hau kontuan izanda, eta posible bada, erasotzailearengana jo.

5. Laguntza bilatu eta erasotzaileari argi utzi bere jarrera ez dela gehiago onartuko, beharrezkoa bada espaziotik kanporatu.

6. Erasoa jasan duen pertsonari jai-gunera, etxera edo laguntza zerbitzuren batera lagundu.Zuk zeuk ezin baduzu norbaitek lagunduko diola ziurtatu.

**Ez badakizu egoten, geratu etxean!**

***Eraso matxistarik EZ!***

DK STUDIO

BARNE DISEINUA



ZURE ETXEA
ZURE NEURRIRA

Dendari kalea 44, Lekeitio
94-684 30 14
dk_lekeitio
dkstudioalekeitio@yahoo.es